

Organització pel **Multilingüisme**
Organización por el **Multilingüismo**
Eleaniztasunaren aldeko Antolakundea
Organización polo **Multilingüismo**

Prensa-oharra



Espainiako monarkia: sexuen arteko berdintasuna, hizkuntzen arteko berdintasuna

Eleaniztasunaren aldeko Antolakundea "Monarkia eleaniztuna" izeneko kanpainari ekitera doa jendartean, Espainiako Errege Familiako kideen hizkuntza-erabilerak arautzeko asmoarekin.

[CASTELLANO · CATALÀ/VALENCIÀ · GALEGO · EUSKARA · ENGLISH](#)

Kanpainaren helburuak

"Monarkia eleaniztuna" kanpainaren helburua da Estatuko lehen erakundeak (Koroak) har ditzala bereak balira bezala eta erabil ditzala bete-betean gaztelania, katalana/valentziera, galegoa eta euskara. Hauek dira Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak egiten dituen eskaera zehatzak:

1. Espainiar guztiei publikoan zuzentzen zaizkienean, Errege Familiako kideek —eta oso bereziki erregeak eta erreginak eta printze edo printzesa oinordekoek— Estatuko lau hizkuntzak erabili behar dituzte.

2. Gaztelaniaz bestelako berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan dabilzanean, Errege Familiako kideek —eta oso bereziki erregeak eta erreginak eta printze edo printzesa oinordekoek— gaztelaniaz bestelako berezko hizkuntza hori erabili behar dute batik bat.

3. Nazioarteko foro eta gertakizunetan parte hartzen dutenean, Espainiako ordezkarietan diharduten Errege Familiako kideek Estatuko lau hizkuntzak erabili behar dituzte.

4. Errege Familiako kide guztien hezkuntza-planetan katalana/valentzieraren, galegoaren eta euskararen ikasketa-maila egoki bat begietsi behar da, gaztelaniaz gainera.

5. Errege Etxeak izen eleaniztuna erabili behar du bere dokumentazio guztian, bere web orria barne, eta herritarrekin eta erakunde publiko eta pribatuekin, berriz, hauek aukeratzen duten hizkuntzan komunikatuko da.

6. Errege Etxearen erregistroak eleaniztuna izan behar du, eta Errege Familiako kide guztiak gaztelaniaz, katalana/valentzieraz, galegoz eta euskaraz dituzten izenekin inskribatuko dira bertan.

7. Errege Etxearen hornitzaileek gaztelania, katalana/valentziera, galegoa eta euskara erabili behar dituzte beren produktuetan.

8. Errege Etxearekin lotura duten sinbolo guztiek —diruek eta zigiluek barne— gaztelania, katalana/valentziera, galegoa eta euskara sartu behar dituzte.

Errege Familiak eta Errege Etxeak, horrez guztiaz gain, begirune berezia agertuko dute asturierara, aragoierara eta okzitaniara edo aranerarekiko.

Aukera historikoa: sexuen arteko berdintasuna, hizkuntzen arteko berdintasuna

Espainiako Gobernuak Espainiako 1978ko Konstituzioa Gorte Nagusien legegintzaldi honetan (2004-2008) aldatzeko gogoia eta konpromisoa adierazi du, Koroaren oinordetzako eskubidean emakumeak eta gizonezkoak berdintzearen.

Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak eskatzen du Konstituzio-aldaketa hau balia dadila, berdintasunezko eleaniztasunaren esparruan, Errege Familiako kideek gaztelania, katalana/valentziera, galegoa eta euskara nola erabili behar dituzten legez arautzeko.

Kanpainako jarduerak: udal eta erakundeetarako mozioak

"Monarkia eleaniztuna" kanpaina hainbat jardueraz osatua egongo da, eta mugarik gabeko epean iraungo du, harik eta bere helburuak lortu arte.

Une honetan, Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak, bi hizkuntza koofizial dituzten autonomia-erkidegoetako udalerrietara bidaliko dituen mozioak aurkezten ditu, baina aurkeztuko ditu beren hizkuntza ofiziala gaztelania soila duten autonomia-erkidegoetako udalerrietan ere, horiek ere onartu eta dagozkien hartzaileei bidal diezazkieten.

Mozio hauek onets ditzakete edozein eratako erakundeek ere. Hemen (www.om-plural.org/mocions/mo-mp-OM-cat.pdf) ikus daiteke PDF formatuan, katalanez/valentzieraz, Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak onetsitako mozioa, jadanik beren hartzaileei —posta ziurtatu eta hartu-agiridun bidez— bidali zaiena.

Koroaren hizkuntza-erabileren ebaluazioa

Eleaniztasunaren aldeko Antolakundea, aurki Errege Familiako kideei bidaliko dien galdesorta lantzen ari da, haiek gaztelania, katalana/valentziera, galegoa eta euskara beren bizitzako maila desberdinetan zenbat erabiltzen duten ebaluatzeko asmoz. Bai galdesorta bera eta bai ebaluazioaren emaitza, argitara emango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Organització pel Multilingüisme
Apartat de correus 107
08560 Manlleu (Barcelona)

Tel: 93 851 28 41

monarquiaplural@om-plural.org
www.om-plural.org

Oharra: Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak ez du Espainiako Estatuaren eredu politikoari buruzko jarrerarik hartzen, iruditzen baitzaio ez dela hori, inola ere, bere jardueren —eta, zehazki, "Monarkia eleaniztuna" kanpainaren— helburua. Eleaniztasunaren aldeko Antolakundeak, Estatuko erakunde zentralek beren sinbolo eta erakundeetan berdintasunezko eleaniztasun-eredu bat hartzera bultzatzearen bakarrik egiten du lan.

Oharra: Barkatu, arren, mezu honekin sortu ahal izan dizkizuegun eragozpenak. Eleaniztasunaren aldeko Antolakundearen beste informaziorik ez baduzue jaso nahi, bidali mezu bat monarquiaplural@om-plural.org helbidera, eta berehala ezabatuko dugu zure e-maila gure datu-basetik. Eskerrik asko.

Manlleu, 2005.eko ekainak 2